

Udan be, geratu barik

UDALEKUAK. Oporrak igaroteko bestelako modu batek arrakasta itzela dauka EAEn. 4.000 neska-mutil inguruk hartuko dabe parte Udalekuetan



JOSU ETXEBARRIOSTE

UMEAK OLGETAN. Aspertzeko asti barik ibiltzen dira neska-mutilak aldundiek antolatutako Udalekuetan.

Josu Bidaguren | **URDUÑA**

«Oso ondo gabilz», «Ez dot etxera joan nahi», «Lagun asko egiten dira hemen», dinoskue Urduñako aterpetxean dagoan neska-mutil talde batek. Maialen, Gaizka, Tamara, Jokin eta Leire Urduñako aterpetxean dagoz astelehenetik.

Paisaje ikusgarri baten dagoan aterpetxean 86 gaztetxo dagoz guztira. Maialen Balmasedakoa da eta EAEko hiru aldundiek antolatzen daben Udalekuetan lehenago be egon da. «Igaz be egon nintzan Udalekuetan eta oso pozik egon be; aurten be errepikatzeke gogoan neukan». Maialen Tamara eta Zuriñekin etorri da Urduñara, eta etorri diranetik ez dabe aspertzeko astirik izan, monitore tituludunen eskutik egun osoa olgetan ibiltzen dira.

Atzo eguerdian aterpetxean dagoan igerilekuan egozan Balmasedako hiru neskatoak egindako lagun barriekin. Jokin, Gaizka eta Leire dira lagun barri horreek eta egin behar dituen jolasei buruz dabilz hitz egiten. Jokinek eta Gaizkak alkar eza gutzen eben, Gasteizko ikastola berean dabilz eta. Leire lezotarra, lagun taldeko gipuzkoar bakarra da, baina ez dau arazorik izan lagun taldean sartzeko, «Lagun asko egiten dira hemen,

ni atzo etorri nintzan eta pilo bat lagun egin ditut. Alkarriketa amaitu beharrean dago monitoreek dei egin deusie eta, lagun taldeak Epotxen taldea osotzen dabenez, igerilekura sartzeko prestatu behar dira, monitoreek atxingiak bota ditue bertara eta Epotxen taldeak arerioek baino gehiago topau beharko ditu. «Joko guztiak alkarrekin egitekoak dira, udaleku horreetan elkar bizitza bultzatu behar da eta», dinosku monitore batek. Alkarrikatutako lagun taldea lez, EAEko txoko guztietatik etorritako neska-mutilak dagoz, Nafarroatik be etorten dira, baina aste honetan Urduñan dagoan taldean ez dago bat be. Batez be Erkidego Autonomoko 7 eta 13 urte arteko 4.100 neska-mutikok hartuko dabe parte EAEko Udalekuetako jardueretan. Garagarriaren 1etik abuztuaren 14ra bitartean 80 gaztetxok osotutako taldeak joango dira astero aterpetxe honetara.

Umeak aspertzeko asti barik ibiltzen dirala esan deusku Itziar Sauto monitoreak. «Egun guztietarako daukagu prestatuta zeozer. Igerilekuan eta kirol zelaietan jolasak, Txarrazo mendira eta Araiara urteera —Miko izozkien lantegia dago hemen— eta Indiada be egiten dogu, umeak moztortu egiten

dira, eta ostean alboko basoetara doaz olgetan». Euria egin ez kero be badaukie zer egin umeek, aterpetxeak gimnasio ezta bat dauka, rokodromoa eta guzti daukana. Ganera, badagoz tailerrak egiteko erabiltzen diran gelak be. «Aurreko aste bietan eguraldi txarra egin dauenez, gimnasioan eta geletan ibili gara olgetan».

Segurtasunari jagokonez, ekintza guztiak arreta handiz zainduko dira, hil eta erdi horreetan egongo diran 550 monitorek Eusko Jaurlaritzaren titulu ofiziala daukie eta. «Gurasoak

ez dute arduratuta beharrik; ezin hobeto dagoz zainduta umeak».

Helburu berezia

Bestetik, kanpainaren helburu garrantzitsuenetariko bat elbarri, adimen gitxiko eta sentimen urrikoei aukera hobeak eskaintzea da, eurentzat antolatzen diran jardueretan. Integrazino prozesua ahalik eta ondoen burutzeko aldundiek arlo horretan esperientzia daben alkartei laguntzea eskatuko deusie. Ume horreentzako plazen %5 eskaintzen dira.

NAZIOARTEKO ATERPETXEA

Zerbitzu barriak eskainiko ditu Urduñako aterpetxeak

Urduñako aterpetxeak zerbitzu barri bat eskainiko dau datoren urritik aurrera. Egungo aterpetxearen alboan eraikiten dabilzan etxe barrian 12 pertsonarentzako lekua eskainiko da. Nazioarteko aterpetxe karneta daben guztiek erabili ahal izango dabe eraikin barria. gaur egungo aterpetxea alkarte, talde eta eskolek erabiltzen dabe; ez dago lekuri familia edo bakarrik doazanentzat. Plentzian dagoan aterpetxeak izan dauen arrakastea ikusita oso itxaropentsu agertu dira Urduñako aterpetxe arduradunak: «Hemen inguruan ehiztari eta mendizale asko ibiltzen dira eta horreentzako eskaintza ezin hobea izan leiteke aterpetxe hau. Prezioak be erakargarriak izango dira: 2.000 pezeta inguru, eguna».

LAGUAREAN

SESTAO

EB-k plaza eta lurpeko aparkaleku barriak eregitea proposatu dau

Amezaga zinea zegoan lekuan plaza eta lurpeko aparkaleku barria erikitzea proposatu dau Sestaoko Ezker Batuak. EBren eritxiz 880 metro koadroko orube eraikigarriak herrian dagoen aparkaleku falta konpondu leike.

SANTURTZI

Santurtziko Udalak ez dau erabagi oraindino zezen plaza barria eregiko daben

Las Viñas zezen-plaza barriaren eriakuntza ez dago ziutatuta. 500 mioiko kostua izango eban zezen-plazak tira-birak sortu ebazan herriko kudeaketa hitzarmena sinatu eben PSE-EE, EB eta EAren artean; Azken biak ez zegozan eta erabakiarekin adoz. Garagarriaren 20an manifestaldia egongo da zezen-plazaren aurka koordinakunde antitaurinoak deituta.

ARRATIA

Gorbeiaiko Kurutzearen Mendeaurrena dala eta ospakizunak egongo dira garagarriaren 19an

100 ute bete ditu Gorbeiaiko Kurutzeak, eta hori dala eta ekitaldi bereziak antolatu dira. Garagarriaren 19an arratsaldeko 19:30etan, Areatzako Klarisa Konbentuen Kapelan, 'Passamezzo Antico' kontzertu barrakoa eskeiniko da. Ekitaldi doan izango da.

ERMUA

Eusko-Trenak gaueko tren zerbitzu berezia eskainiko dau Ermuko jaietan

Ermuko jaiak dirala eta Eusko-Trenak zerbitzu bereziak eskainiko ditu. Azken urteetan lez tren bereziak egongo dira Durango-Ermua, Elgoibar-Ermua, Ermua-Durango eta Ermua-Elgoibar lineetan. Ermuko jaietaz gan tren konpainiak. Aurreko urte bietako Esperientziak erakusten dauanez zerbitzu horreek bidaiari asko izaten dabe. Gainera, gauez kotxea hartzea saihesten da.